Orioko Herri Ikastola
ORIO GARA

# IXIL IXILIK DAGO

IXIL IXILIK DAGO, KAIA BARRENIAN

ONTZI TXURI POLIT BAT, URAREN GAINEAN.

IXIL IXILIK DAGO, KAIA BARRENIAN

ONTZI TXURI POLIT BAT, URAREN GAINEAN

GOIZEKO ORDU BIETAN, ESNATUTZEN GERA

ARRANTZALIAK **BETI**, JOATEKO URRUTIRA

GOIZEKO ORDU BIETAN, ESNATUTZEN GERA

ARRANTZALIAK **BETI**, JOATEKO URRUTIRA.

ZERGATIK, ZERGATIK, ZERGATIK, ZERGATIK?

ZERGATIK NEGAR EGIN?

ZERUAN IZARRA DAGO, ITSASO ALDETIK.

ZERGATIK, ZERGATIK, ZERGATIK, ZERGATIK?

ZERGATIK NEGAR EGIN?

ZERUAN IZARRA DAGO, ITSASO ALDETIK.

BAT, BAT BAT, **PARRANDAN IBILI BART**

PARRANDAN IBILI BART.

BI, BI, BI, EZ NAIZ ONDO IBILI

EZ NAIZ ONDO IBILI.

HIRU, HIRU, HIRU, KOLKOA BETE DIRU

KOLKOA BETE DIRU.

LAU, LAU, LAU, SARDINA BAKALAU

ANTERON TXAMARROTIA

SINKERREN BIBOTIA

HARETXEK EZ DAUKA, EZ DAUKA

PRESO TXIMINOIA.

ANTERON TXAMARROTIA

SINKERREN BIBOTIA

HARETXEK EZ DAUKA

PRESO TXIMINOIA.

ANTERON TXAMARROTIA

SINKERREN BIBOTIA

HARETXEK EZ DAUKA

PRESO TXIMINOIA.

HAU DEK, HAU DEK

HAU DEK UMORIA

KONTSOLATZEKO, KONTSOLATZEKO

EUSKALDUN JENDIA.

KALIAN GORA, KALIAN BEHERA

KALIAN GORA ZEZENA, AI, AI, AI.

KALIAN GORA, KALIAN BEHERA

KALIAN GORA ZEZENA.

KALIAN GORA, KALIAN BEHERA
KALIAN GORA, KALIAN BEHERA
KALIAN GORA, KALIAN BEHERA
KALIAN GORA ZEZENA.

KALIAN GORA, KALIAN BEHERA
KALIAN GORA, KALIAN BEHERA
KALIAN GORA, KALIAN BEHERA
KALIAN GORA ZEZENA.
ISIL ISLIK DAGO

## BOGA BOGA

BOGA, BOGA
MARIÑELA, MARIÑELA
JOAN BEHAR DEGU
URRUTIRA, URRUTIRA
BAI INDIETARA,
BAI INDIETARA.(BIS)

EZ DET, NIK IKUSIKO
ZURE KAI EDERRA,
KAI EDERRA,
AGUR, ONDARROAKO
ITSASO BAZTERRA.
(BIS)
BOGA

ITSAS, ITSASO
BAZTERRA.

MARIÑELA,
MARIÑELA,
BOGA!
MARIÑELA.

# MAITETXO ITSASOAN DAGO

MAITETXU ITSASORA JOAN DA
ITSASONTZI BATEAN
MAITETXU ITSASOAN DAGO
URRUTIRAKO BIDEAN.

MAITE, MAITE
EZ NI UTZI HEMEN KAIEAN
MAITE, MAITE, ZU NERE BIHOTZEAN.

MAITETXU NOIZ ETORRIKO DA
NERE BIHOTZA ZAIN DAGO
MAITETXU NOIZ ETORRIKO DA
BIOK ELKAR BIZITZEKO.

MAITE, MAITE
EZ NI UTZI HEMEN KAIEAN
MAITE, MAITE, ZU NERE BIHOTZEAN.

MAITETXU ITSASORA JOAN DA
ITSASONTZI BATEAN
MAITETXU ITSASOAN DAGO
URRUTIRAKO BIDEAN.

MAITE, MAITE

EZ NI UTZI HEMEN KAIEAN
MAITE, MAITE, ZU NERE BIHOTZEAN.

## ITSASONTZI BATEN

ITSASONTZI BATEN

EUSKAL HERRITIK KANPORA

NARAMATE ETA EZ DAKIT NORA

.( BIS)

AGUR NERE AMA

LAZTAN GOXOARI

AGUR NERE MAITE POLITARI.

EZ EGIN NEGAR

ETORRIKO NAIZ

EGUNEN BATEN

POZEZ KANTARI. (BIS)

ITSASONTZI BATEN

EUSKAL HERRITIK KANPORA

NARAMATE ETA EZ DAKIT NORA.(BIS)

AGUR SENIDEAK

AGUR LAGUNARI

AGUR EUSKAL HERRI OSOARI.

EZ EGIN NEGAR

ETORRIKO NAIZ

EGUNEN BATEN

POZEZ KANTARI. —(BIS)

ITSASONTZI BATEN

EUSKAL HERRITIK KAMPORA

NARAMATE ETA EZ DAKIT NORA. (BIS)

AGUR NERE AMA

LAZTAN GOXOARI

AGUR NERE MAITE POLITARI.

EZ EGIN NEGAR

ETORRIKO NAIZ

EGUNEN BATEN

POZEZ KANTARI.

AGUR SENIDEAK

AGUR LAGUNARI

AGUR EUSKAL HERRI OSOARI.

EZ EGIN NEGAR

ETORRIKO NAIZ

EGUNEN BATEN

POZEZ KANTARI.

**GORA EUSKAL HERRI**
**GORA EUSKAL HERRI**
**GORA EUSKAL HERRIARI.**

ITSASONTZI BATEN

IKUSI ZUTENIAN
HALA ZEBILELA
BERIALA JUN ZIRAN
TREINERUEN BILA.
ARPOI TA DINAMITAK
ETA SOKA BILA.
AGURO EKARTZEKO
ETZAN JENDE HILA

BOST TREINERO JUAN ZIRAN
PATROI BANAREKIN.
MUTIL BIZKOR BIKAINAK
GUZTIZ ONAREKIN.
MANUEL OLAIZOLA
ETA LOIDIREKIN.
URANGA, ATXAGA TA
MANTEROLAREKIN.

# BALEAREN BERTSOAK

MILA BEDERATZIEUN DA
LENENGO URTIAN
MAIATZAREN HAMALAU
GARREN EGUNIAN
ORIOKO HERRIKO
BARRAREN AURRIAN.
BALIA AGERTU ZAN
BEATZIK ALDIAN.

HAUNDIA BA ZAN ERE
AZKARRA IBILIAN.
BUELTAKA HAN ZEBILEN
JUAN DA ETORRIAN.
ONDARRA ARROTUAZ
MURGIL IGARIAN.
ZORRIAK ZEUZKAN ETA
HAIEK BOTA NAHIAN.

BALEAREN BERTSOAK

BALIAK EGINDAKO
SALTO TA MARRUAK
ZIRAN IZUGARRI TA
IKARATZEKUAK
ATZERA EGIN GABE
ANGO ARRISKUAK
ARPOIAKIN HIL ZUTEN
HAN ZIRAN HANGOAK.

BOST TXALUPA JIRAN DA
ERDIAN BALIA
GIZONAK EGIN ZUTEN
BAIN NAHIKO PELIA.

IKUSI ZUTENIAN
HILA EDO ITOA
LEGORRETIKAN BA ZAN
BIBA TA TXALOA.

HAMABI METRO LUZE
GERRIA HAMAR LODI
BUZTAN PALAK LAU ZABAL
ALBUETAN PALA BI.
EZPAINETAN BIZARRAK
BESTE ILERA BI
ORRAZIAK BEZALA
AIN ZEUZKAN EDERKI.

GORPUTZEZ ZAN MILA TA
BERREUN LARRUA.
BESTE BERREUN MINGAIN
TA TRIPA BARRUAK.
GUTXI JANAZ ETZEGON
BATERE GALDUA.
TINAKO SEI PEZETAN
IZAN ZAN SALDUA.

GERTATU BAT JARRI DET
EGIAREN ALDE.
HAU HORRELA EZ BADA
JENDIARI GALDE.
BIHOTZEZ POZTURIKAN
ATSEGINTSU GAUDE.

**GORA ORIOTARRAK**
**ESAN BILDUR GABE**

## ARRANTZA

Itsasoa da beti
lurrari musuka,
ta lurra ogi eske
laztanaren truka...
Alkar-maiteak dira
biak, ezin uka,
aldiz egiñagatik
hasarre burruka.

Oriotarren kezka
miñena da barra;
itsasorako duten
ur-bide bakarra,
ogi-bila joateko,

igaro beharra
heriotza dutela
zelatari zarra...

Oñez motela bait da
antzara, ur-zale...
Hainbat arrantzalea
nagi kalez-kale...
Bere otarrarekin,
behartsu maitale;
dunean ase ditu
hamaika eskale.

ARRANTZA

HITZAK: Fabian Loidik
MUSIKA: Imanol Urkizu